

UDALEKUAK 2008

UDARAKO ESKAINTZA ZABALA!!!

Udaleku itxiak

Izena emateko epea zabaldu aurretik, ia beteta egon da udaleku finkoko zerrenda! laz joandakoak berriro joateko gogotsu agertu dira, eta berriak irrikaz daude lagunei entzundako kontutxoaren protagonista izateko eta abenturak lehen pertsonan bizitzeko. Aurtan Zugastietara joango dira gure taldeko gaztetxoak.

Data: uztailaren 17tik 28ra
Adin tartea: LH 4 - DBH 2

Udaleku ibiltaria gogorragoa da eta leku asko geratzen ez bada ere, badago oraindik izena emateko tartea. Añamendi eta Hernani batzen dituen bidea egingo dute gazteek, bederatzi etapatan.

Data: uztailaren 1etik 16ra
Adin tartea: DBH 2 - 18 urte

Berrikuntza bat ere badugu aurtan: aspaldiko partez egin ez den bizikleta martxa berreskuratu da. Nagusienentzako antolatu da udaleku hau eta, talde txikian, aste beteko itzulia emango dute: Durangotik irten eta Urbanan buelta emanda, atzera Durangora.

Data: uztailaren 30etik abuztuaren 6ra
Adin tartea: 18 urtetik aurrera

Herrietako udalekuak

Aurrekoez gainera, Berbarok ahalegina egingo du ondorengo herrietako udalekuak kudeatzeko: Abadiño, Durango, Elorrio, Garai eta Mallabia. Batzuk konfirmatuta daude eta beste batzutan lehiaketan parte hartu beharko dugu. Edozein kasutan ere, Durangaldeko umeen neurria egindako proiektuak aurkeztuko ditugu.

Herri oso desberdinak dira, euskeraren erabilerari dagokionez eta herriaren tamainari erreparatzen badiogu ere bai. Ume asko izango ditugu batzutan eta gutxiago beste batzutan, baina Berbarok egingo dituen udaleku guzti-guztietan ilusio eta gogo berdina jarriko dugu umeek euskeraz jolastuz gozatu dezaten!

Udalekuak

BERBARO 08

FINKOA

ZUGASTIETA

Uztailaren 17tik 28ra

LH4 - DBH2

prezioa: bazkideak 200 €/ ez bazkideak 230 €

IBILTARIA

Uztailaren 1etik 16ra

DBH2 - 18 urte

prezioa: bazkideak 200 €/ ez bazkideak 220 €

BIZIKLETA martxa

DURANGO - DURANGO

Uztailaren 30etik abuztuaren 6ra

18 urtetik gora

prezioa: bazkideak 160 €/ ez bazkideak 180 €

Matrikulazio epea: maiatzaren 8ra arte.

Matrikulazio tokia: Berbaro (Pintado etxea) 94.520.10.10

Laguntzailea: 

20. URTEURRENA

Duela 20 urte agertu zen gure artean beharrera, enpresa entzutetsu batek kontrataturik. Lagun egin ginen, gaztelera apur bat bazekien. Euskeraz egiten entzun zigun aurreneko aldian, harrituta, ez zekiela beste hizkuntza baten ere komunikatzen ginenik.

Datorren urtean 20 urte beteko dira BERBARO elkarteak sortu zela, gutxi batzuen "amorraldi" bati esker (barka nazatela). Orduan, 1989an, etorkin lagun etorri berri haren antzeko durangarrak bazeuden, artean euskera zer zen ere ez zekitenik.

Zorionez, gaur egun beste egoera bat dugu, mamuak mamu. Euskerak erabilera esparruak irabazi ditu, adin guztietara zabaltzen da, eta gizartearen arlo gehienetara. Berbarok zeozertan lagundu duelakoan nago, proiektu berritzaileen sustatzaile da, "kume" ugariren sortzaile da, prestigioa eman dio gure hizkuntzari... Hala ere, egindako bidean argiak izan diren arren, ilunak ere kontatu daitezke, gure mundu xumean oztopo eta galga asko gaititu behar izaten dira eta.

Urteak joan urteak etorri, ia 20 igaro dira, eta gizarteak daroan erritmoa hain da azkarra, ze badirudi asmatu ezinean gabiltzala. Azken urteotan itzelean aldatu da bizimodua, teknologia berrien menpe bizi gara, neurri handian. Egokitu egin beharko dugu, ba, elkarteak datozen erronkei erantzuteko. Nik konfiantza handia daukat gazteengan, baina nago, ezinbestekoak direla bazkide zaharren

eta gazteen iritziak, iradokizunak, ekarpenak eta denon lana, azken batean.

Beraz, gonbitea bidaltzen dizuet txoko honetatik 2009an ospatu gura dugun Berbaroren hogeigarren urteurrena antolatzeko.

Batzuk gogotsu gabiltza jadanik datorren urteari begira. Animo! ba, bazkide, eman zure izena urteurren gogoangarria antolatzeko, lantaldea osatzeko asmoa dugu eta.

Gimondi



8. urteurreneko ospakizuna

Udaberrirako ikastaro bi ditugu prest:

Dakizuenek, urtero gai orokorreki buruzko bizpahiru ikastaro antolatzen ditugu. Udara arteko tarte honetan ikastaro desberdin bitan izena emateko aukera duzue.

MAKILLAJEA

Egoera bakoitzerako (goiza, gaua, jai bereziak...) makillaje egokia aukeratu eta ondo erabiltzen ikastea izango da ikastaro honen helburua. Kosmetikak eskaintzen dizkigun aukerak ezagutuko ditugu, produktu bakoitza noiz, nola eta zertarako erabili dezakegun, zerk ematen digun ondo eta zerk ez ikasiko dugu, beraz, 16 orduko ikastaro honetan.


Datak: astearte eta asteazkenetan, maiatzaren 6tik maiatzaren 28ra

Ordutegia: 18:00 -20:00

Tokia: Ibaizabal Ikastolan

Irakaslea: Markel Pastor Jaio

Prezioa: bazkideek, 30€
bazkide ez direnek, 35€



JAKIEN MANIPULAZIO TXARTELA

Elikagaien kalitate eta higienerari buruzko ikastaro honetan jatetxe, taberna zein udalekuetako sukaldeetan lan egiteko behar beharrezkoa den agiria lortuko dute parte hartzaileek. Zortzi orduko ikastaroan, elikagaien lan egiteak dauzkan erantzukizunak ezagutu eta neurtuko ditugu. Hau da, higiene egokiaren garrantzia eta elikagaiak gaizki manipulatzeko duen arriskua neurtuko dira batez ere.

Noiz: ekainaren 6an, 17.00-20.00
eta ekainaren 7an, 9.00-14.00
Irakaslea: Asier Eguren (Elkolab, S.Coop.)

Oharra: lan kontratua edo Langain izena emanda dutenentzat (%100 subentzionatua)



Euskera indartzeko saioak ume etorkinentzat

Udaleko Euskera Sailak eta Inmigrazio Sailak elkarlanean antolatuta, 2008ko urtarrilean ekin zion Berbarok euskera indartzeko saioak prestatzeari. 5 eta 16 urte bitarteko ume etorkinei zuzenduta daude eta, ekintza ludikoen bidez, euskera hobetzea dute helburu: umeak irakaskuntzaren testuingurutik atera eta bizipenak era naturalagoan izatea nahi dugu. Nagusienak, hau da, 11 eta 16 urte bitartekoak Abarrak AEKn dabilta. Berbarok 5 eta 10 urte bitartekoekin dihardu lanean. Horretarako, Pinondo Etxeko ganbara ludoteka bihurtu dugu astelehen, martitzen, eguazten eta eguenetan, arratsaldeko 5etatik 6etara. Kalera ere ateratzen ditugu umeak jolastera.

Guztira 60 ume hartzen dute parte, 5 taldetan, Durangoko ikastetxeek bidalita eta gurasoen baimenarekin. Izan ere, eskolen parte hartzea eta inplikazioa ezinbestekoa izan da egitasmoa hau aurrera eramateko. Eurek egin baitzioten proposamena Udalari, herrira etorri berriek euskal eredueta ikasteko dituzten arazoak direla eta. Eskolaz kanpoko jardura hau, ba, guztiz ludikoa da, eta Berbarok 3 begirale ipini ditu umeak motibatzen, eurekin olgetako, gure kultura eta ohiturak eurei ezagutarazteko, eta eurek eurenaren berri elkarri emateko. Izan ere, hainbat kulturetako umeak batzen ditu egitasmo honek, besteak beste, hegoamerikarrak, afrikarrak, errumaniarrak, txinatarak eta, tartean, autoktonoren bat ere bai.


IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU

Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina hau bigarren urtez abiatu zen apirilaren 23an Euskal Herriko 17 herritan, tartean Durangon. Udal liburutegiko euskerazko liburuak irakurri eta berriak deskontuarekin erosteko aukera ematen digu irakurri, gozatu eta oparitu kanpainak. Aurten ere, literatura onaz gozatu eta poltsikoa zaintzeko aukera izango dugu. Gainera, liburu aukera iazkoa baino askoz handiagoa da, liburutegiko funts osoa.

Noiztik noiz arte: apirilaren 23tik ekainaren 23ra.

Ondorengoak dira parte hartzeko pausuak:

- Udal liburutegian liburuak maileguan hartu eta irakurri (100 liburu gomendagarri egongo dira, baina aurten liburutegiko funts osoa dago erabilgarri)
- Irakurritako liburuari dagokion fitxa (Zer gustatu zaizun gehien? Zer gutxien?...) bete eta deskontu txartela eskuratu liburutegian bertan.
- Hitz, Urrike edo Irakurri liburu dendetan erosi dezakezu euskerazko edozein liburu, aurretik irakurritakoa edo beste bat. Ordaintzerakoan, deskontu txartela erabilita, %50 egingo digute Berbaroko bazkideoi, eta %25 bazkide ez direnei.



MARTXOAK 31


Urtero lez, 1937an Durangok jasandako bonbardatzea gogoan hartuta, ekitaldia egin genuen martxoaren 31n Andra Mariako elizpean, Gerediaga eta Kriskitinekin batera. Ordu erdi inguruko ekitaldi laburrean Barreñatarak izan ziren plakapean lore-sorta jartzeko ardura izan zuten egun hartako testiguak.



argitalpen berriak

Prosa komunikagarriagoa egiten. Zenbait proposamen (I)

- Egilea: Mitxel Kaltzakorta Mentxaka
- Argitaletxea: UEU
- Orrialde kopurua: 428



Liburu honetan egileak proposamen batzuk egiten ditu euskal prosa arintzeko, komunikagarriago egiteko; eta, horrenbestez, errazago irakurtzeko. Izan ere, ajez eta gaitzez daukagu josita euskara, gaixorik, nekez irakurtzeraino, alderatuz gero edozein albo-hizkuntzarekin. Gaurko prosak, besteak beste, gaitz bat dauka larria: ordena informatibo mota bat, atzerakarga deritzona, zeina liburu honetan aztertzen den hasiera-perpauetan, eta irakatsi zelan arteztu edo zuzendu.

Liburu honen gainean zera dio besteak beste, Joxe Aranzabalek bere blogean: "Nik asko ikasi dut Mitxelengandik, berak erakutsi zidan idazten. Eta nirekin erabilitako sistema bera darabil orain liburu honetan, irakurleari pausoz pauso erakusten dio-eta zelan konpondu komunikazio arazoak, atzerakargak eragindakoak"


"Liburua oso didaktikoa da: unitate bakoitza teoria apur batekin hasten da, ondoren adibideak erakusten dira, eta bukatzeko, ariketak, irakurleak berak ahaleginak egin ditzan esaldi gaizki antolatuak konpontzen. Liburuaren amaieran, gainera, soluzioak eskaintzen ditu Mitxelek, aurretik proposatutako ariketa guztienak"

"Liburu hau erabat gomendagarria da euskara komunikazio tresna dugun guztiontzat, irakasleak izan, kazetariak edo ikasleak. Nik, behintzat, biziki gomendatzen dizuet."

ikimilikili..klik

Aurreko buletin batean, nobedade moduan aurkeztu genizuen **www.berbaro.com** web gunea, baina jakina da teknologia munduan nobedadeak oso denbora gutxi irauten dutela eta gaur berria dena oso gutxira zaharkituta geratzen dela; hau da gertatu zaiguna, hain zuzen ere. Horregatik, beste buelta bat eman diogu web guneari eta ahal izan ditugun berrikuntzak sartu dizkiogu, Joomla edukiak kudeatzeko sistema jarri. Baina zertan datza aldaketa? Itxura erabat aldatu da, lehengo nabigatze astuna arindu nahi izan dugu eta lortu dugulakoan gaude, nahiz eta oraindik gehiago landu beharra dagoen.

Gainontzeko aldaketak teknologiarekin dute zer ikusi gehiago. Joomla, atari dinamikoentzako motor bat da eta edukiak kudeatzeko sistema. Edukien publikazioa, antolaketa eta kudeaketa errazten du. Parte hartzeko aukera du web gune berriak, beraz, zuok ere internautak izan zaitezke **www.berbaro.com**-en. Aukera duzue, berriei erantzuteko eta iritziak jaso eta eztabaidatzeko, eta berrien atalean harpidetzeko. Era berean, Berbarok sortzen dituen dokumentuak kontsulta ditzakezue. Dena dela, eguneratzea astiro doa, denbora behar du. Eta jakina, zuen iradokizunak asko estimatzen ditugulako, idatzi, deitu edo bertara etorri. Web guneari bestelako erabilgarritasuna eman nahi badiozue, ahalegin guztiak egingo ditugu. Ondo izan.



BATZAR NAGUSIA '08



Martxoaren lehenengo egunean egin genuen elkartearen urteroko Batzar Nagusia Plateruena Kafe Antzokian. Parte hartze handiegia izan ez bazen ere, giro politean egin genuen iazko urtearen errepasoa eta ekitaldi berriaren aurkezpena. Bestalde, Zuzendaritzara ongi etorria eman genion Jon Urretabizkaia kide berriari eta, elkartearen egin duen lanagatik esker ona adieraziz, gero arte esan genion Gaizka Uriarteri.